

ZARAUTZ / Liburu eta ikus-entzunezkoen bilketa Udal Liburutegian

ZARAUTZ DV. Liburuaren egunaren inguruan,, aste honetan Pello Añorga ipuin kontalaria izan da Haur Liburutegian, baina honekin batera, aurrera jarraitzen du liburu eta ikus-entzunezkoen bilketa. Hegoaldeko, Cuba, Honduras ... eta Sahararako kanpainarako liburu bilketa da hain zuzen. Elan-Euskadi eta Saharautz, Gobermuz Kanpoko Erakundeek, aurten ere, liburua protagonista duen hilabete honetan, liburu bilketari ekin diote. Hori dela eta, Sanz Enea Liburutegiak bilketa horretan parte hartzen du eta, bildutakoa aipatutako GK Eren artean banatuko du. Beraz, liburuak, zein CD, VHS, DVDekin beste herriko biztanleei laguntzeko prest dagoenak liburutegira eramaterik besterik ez du.